

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula (**200 hitz**).
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).
- Zure idazlana zuzentzean, arlo hauek hartuko dira kontuan:
 - egitekoa
 - testuaren antolaketa eta garapena
 - euskararen egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna

Herriko aldizkarian honako albistea irakurri duzu:

Liburua, babes berezirik behar?

Herrian zegoen azken liburu-denda itxi egin dute. Lehen herrian bat baino gehiago ziren, baina azken urteotan itxiz joan dira.

Kezka handia sortu dizu azken liburu-dendaren itxierak, eta erabaki duzu herriko aldizkarian zuzendariari gutuna idaztea, egoeraren gaineko gogoeta egiteko.

Egoerari erantzuteko, honako puntu hauek **erabili behar dituzu**:

- ebooken eragina liburugintzaren bilakeran
- Irakurzaletasunaren egoera
- Liburugintzaren egoera nola hobetu
- Handiek txikia jaten dute

